


IRABAZI ITURRIAK

Enpresa bat sortzerako orduan, modu onean atera dadin, enpresak irabazi iturriak izatea garrantzitsua dela antzeman daiteke, izan ere, gure ekonomia plana kudeatzen laguntzen digu eta gastuen arloa kudeatzen ere. Gure kasuan, bezeroek ez dute ordaindu beharko, izan ere, laguntza bat ematean datza gure enpresa. Ordea, gurekin kolaboratuko duten enpresek ordainduko digute.

Gure ordainketa mota, nagusiki publizitatea da, izan ere, hainbat enpresa eta erakunde iragarriko ditugu eta irabazi iturria %80koa izango da. Aipatu dugun bezala gure proiektua doainik da bezeroentzat baina enpresek ordaindu beharko dutena aldakorra izango da beraien irabazien arabera izango delako ordainketa hori. Enpresa horiek, ordaindu egingo digute gure web orrian publizitate moduan ateratzeko. Kolaboratuko dugun enpresek 6 hilabetero diru kantitate bat ordainduko digute gurekin kolaboratu ahal izateko eta irabaziak segurukoak izateko.

Neurri txikiago batean harpidetza-prima bidez ere lortuko ditugu irabaziak, %20a. Azpimarragarria da bezeroen izen ematea doainik dela esatea. Hala eta guztiz, bezeroak harpidetzeko aukera izango nahi izanez gero. Hori horrela balitz, zenbait abantaila izango dituzte beste bezeroekiko. Hauek izango dituzten abantaila, lehentasuna izango dutela aukeratuak izaterako orduan eta zerrenda luzeagoa lana aukeratzeko orduan.



Gurekin kolaboratuko duten enpresek ordaindu beharko dutena aldakorra izango da, hasiera batean enpresek bere irabazien %6a emango digute. Martxotik irailera



gure kuota beste hilabeteetan baino %15 altuagoa izango da lanen demanda altuagoa izango delako urteko garai honetan.

Gainera, merkatuaren segmentuari erreparatuz gero, bi talde desberdinetan banatzen dira gure bezeroak. Alde batetik, gurekin kolaboratuko duten enpresak gure bezeroak dira, gure proiektuan parte hartzeagatik, hau da, lan aukerak emateagatik gure webgunean, ordaindu egingo baitigute. Bestalde, lan egiteko aukera emango diegun gazteak, gure bezeroak dira baita ere. Aukera bereziak eduki nahi badituzte beste bezeroekiko, harpidetza prima bat ordaindu beharko digute hilabetero, lehen aipatutako abantaila lortzeko.

Hortaz gain, kontuan eduki beharra dugu gure bezeroak bereziki gazteak direla, eta ez dutela dependetzia handia oraindik, hau da, berain gurasoen menpe daude ordaintzerakoa garaian. Horregatik, ez dira gehiegi ordaintzeko prest egongo, eta nahi izanez gero soilik ordainduko dute harpidetza prima berezitasun batzuk eskuratuz.

Beste enpreseri dagokionez, enpresa txikiak eta herrikoiak dira gehienak, horregatik beraientzako eskuragarriak diren prezioak ordaindu beharko dizkigute.

Esan bezala, harpidetza prima batetaz baliatuko gara diru sarrerak lortzeko. Hilabetero 4,95€ ordainduko dizkigute bezeroak. Horrek, lanpostua aukeratzeko baliabide gehiago emango dizkio. Adibidez, harpidetza prima ordainduz gero, zerranda luzeagoa izango dute, azken finean lehen aipatutako lehentasun hori izango dutelako.

Hasiera batean, mailegu baten bidez lortuko ditugu diru sarrera, 3500€ eskatuko ditugu enpresaren hasierako pausoak burutzeko. Besteak beste, alokairua eta materialak ordaintzeko. Horretaz gain, gure proiektuaren web-a egitea doainik izango denez, alde horretatik ez dugu dirurik beharko. Gainera, beste enpresekin kolaboratzen hasten garen momentutik aurrera edukiko ditugu diru sarrerak, beraiei egingo diegun publizitateak emango digu dirua, eta bertatik lortutakoarekin mailegua ordainduko dugu eta soldata edukitzen hasiko gara.

Laburbilduz, gure irabazi iturriak harpidetza-prima eta publizitatearen bidez lortuko ditugu diru sarrerak. Diru hau gure proiektua aurrera eramateko erabiliko dugu, hobetzeko eta hedatzeko.